



**Laikotasuna-Colectivo por la laicidad**

*Laikotasunagipuzkoa.wordpress.com*



**"Nicolás Guerdain" Irungo Errepublikarrak**  
**Arbelaitz kalea, 3 Behea**

**Tel.: 669 075423 – P.K.:10008**

**[www.asociacionrepublicanairunesa.org](http://www.asociacionrepublicanairunesa.org)**

**E-mail: [140431@asociacionrepublicanairunesa.org](mailto:140431@asociacionrepublicanairunesa.org)**

*Laikotasuna- Laikotasunaren aldeko kolektiboak eta "Nicolás Guerdain" Irungo Errepublikarren Elkarteak udal talde politikoengana jotzen du ondoko zuzenketa aztertzeko, eztabaidatzeko eta ondorengo onartzeko*

### **ZUZENKETA**

Legearen aurreko berdintasuna demokraziaren oinarrian dago. Herrialde oro eta erakunde guztiak behartuta daude berdintasun printzipioa modurik arduratsuenan betetzera, eta hortaz, leudekeen erlijioetariko edozeini besteen aldeko tratatu hobek eta erlijiorik gabekoen aurkako diskriminazioak saihestera.

Era berean bermatu egin behar dira emakumeen eta gizate veste sektoreen eskubideak. Ezin dugu ahaztu emakumeak orokorrean eta genero eta sexuaren aukera batzuk zigortuak izan direla erlijio ezberdinengatik.

Gure gizarteko egoera ekonomikoa bankuek, merkatu direlakoek eta espekulatuzaileek aurrera eramandako ebasketa erraldoiaren eta erakunde publikoen kudeaketa okerraren ondorio dira baina baita diru beltzaren joan etorriek daukaten erraztasunaren eta dagoen iruzur fiskal jigantearen emaitza. Hori guztia Euskal hirritaroen bizkarrean erortzen ari da, eta denok ari gara jasaten izugarritzko langabezia, pobrezia, oinarritzko gizarte-eskubide askoren murrizketa, BEZaren eta gainerako zergen hazkundea, eta soldaten eta pentsioen beharpen orokor eta alde bakarrekoa.

Egoitza Santuaren eta Esgtatu Espainolaren arteko itunetan Eliza Katolikoaren ondasun higiezinaren aldeko erabaeko eta betiko zerga exentzioa ezartzen da, erakunde pribatu hori, ondasun higiezinaren ghorien pilatzen duena izanik. Elizak gozatzen duen zerga-exentzio hori del aeta, diru pila kentzen zaie udalei; denok ordaindu behar dugun dirua. Iraingarria da bizi dugun krisi ekonomiko eta social larri honetan, hiritarroi kontribuzioa handitu nahi izatea eta jaberik aberatsenak ezer ez ordaintzea.

Zerga-iruzurrak, eta zerga-salbuespenek, OHZarena, eta beste zenbaitek, izugarritzko zama dira gure udalen diru-kutxentzat, berdintasun-printzipioa hurratuz gaitera; guztizko bidegabekeria, beraz.

Aurrekoak kontuan hartuz, honako erabaki hauek har ditzan proposatzen diogu Osoko Bilkurari.

## **ERABAKIAK**

1.- Irungo Udalak Eliza Katolikoaren eta beste erlijioen, hala nola haien inguruko erakunde eta elkarteen izenean erroldaturik eta erregistraturik dauden ondasun higiezin landatar zein hirritaren errolda osoa egingo du.

2.- Era berean, espainiar legebiltzarra premiatu du Egoitza Santuarekin egin diren Akordioak indargabetzera, bereziki, erlijio entitate honek betetzen ez dituen Gai Ekonomikoei buruzkoa, Ondasun Higiezin Zergaren gaineko foru arauaren aldaketa aurretik eginda Gipuzkoako Batzar Nagusien aldetik, eliza katolikoaren eta beste erlijio konfesioen ondasunen OHZ zerga udalak kobratu dezala.